ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2020ko urtarrilaren 31, ostirala • 12 zk.

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Diputatu Nagusiaren 547/2019 Foru Dekretua, abenduaren 30koa. Gizarte eraldaketarako hezkuntzako proiektuetarako dirulaguntza deialdia onartzea. Deialdi hori irabazteko xederik gabeko elkarte eta erakundeentzako da eta dirulaguntza nori eman lehiaketa bidez ebatziko da. 2020ko ekitaldia

Arabako Foru Aldundiaren lankidetza eta elkartasun politika publikoaren agiriaren helburua da jardun esparru garbi bat ezartzea, 2030 Agenda Berrian eta Garapen Jasangarriaren Helburuetan (Nazio Batuen Batzar Orokorrak onartu zituen) ezarritako oraingo nazioarteko erronka eta esparruei egokitua, esparru horri erantsi behar zaizkiolarik lankidetzako foru politika partaidetu, elkar banatu eta gizarteari ireki batean beharrezkoak diren hobekuntzak eta egokitzapenak:

"Arabako Foru Aldundiaren Elkartasun eta Lankidetza Politiken Esparru Dokumentua, ESKUTIK, 2016/2019" - urriaren 4ko Diputatuen Kontseiluaren 629/2016 Erabakiaren bidez onartua, eta azaroaren 8ko Diputatuen Kontseiluaren 718/2016 Erabakiaren bidez aldatua.

Hurrengo urratsa ESKUTIK MUNDURAri ekitea izan da, lankidetza politika publiko desberdina (berritua, berritzailea, eguneratuta…) eraikitzeko erronkari erantzuten dion prozesu parte hartzaile gisa, elkarrekin lankidetzan jarduteko lan gune bat tinkotuz.

Era honetan, foru lankidetza nazioartean arautzen duen programa esparrua bi hauek eratzen dute: Nazio Batuen Garapen Jasangarriaren 2030 Agenda berriak eta Garapen Jasangarriaren Helburuek. Bi horiek 2015eko irailean onartu ziren pertsonen, planetaren eta oparotasunaren aldeko ekintza plan gisa, eta plan horrek datozen urteetan abiarazi beharreko erabakiak eta ekintzak gidatuko ditu.

Aintzat hartuko da, halaber, Klima Aldakeetaren gaineko Nazio Baten Esparru Hitzarmena, Parisko Gailurrean mundu osorako onartutako erabakia, gizakiek beren berotegi efektuko isuriekin eragindako berotzea eragozteko bidea irekitzen duena.

Era berean, Foru lankidetza gidatzen duen arau esparrua otsailaren 22ko 1/2007 Euskal Legea, garapenerako lankidetzarena, da. Hauexek ezartzen ditu lege honek: euskal lankidetzari identitate ongi definitua, oinarri daukana epe luzeko garapen prozesuei laguntzeko planteamendu batetik abiatuta egiturazko pobrezia eta desberdintasunak erauztean oinarritutako eredu bat, ematen dioten printzipio arautzaileak, helburuak eta lehentasunak.

1/2007 Legeak, otsailaren 22koak, Garapenean Laguntzekoak, 23. artikuluan xedatutakoaren arabera, garapenerako hezkuntza da Iparraren eta Hegoaren garapen desberdinei lotutako arazoen zergatiei eta ondorioei buruzko jakintzak sustatzea, haien inguruan herritarren kontzientzia kritikoa piztea eta arlo horretan jardun solidarioak eta konpromiso aktiboa sortzea. Garapenerako hezkuntzaren zati dira gizarte sentsibilizazio, prestakuntza eta ikerketa jarduerak.

Beste urrats batean, 2017. urtean onartu den (H) ABIAN 2030 Gizarte Aldaketarako Hezkuntzako (GAH) euskal Estrategiak, GAH hori aitortzen du Garapenerako Hezkuntzaren zuzeneko oinordeko gisa, zeina azken hamarkada hauetan antolakunde eta erakunde publikoek bultzatu izan baitute herritarrak kritikoak eta munduan dagoen injustizia eta desberdintasunaren jakitun izatea eta gizabanakoengan eta taldeengan aldaketak sortzen dituzten berdintasun eta elkartasunezko jardunak sustatzeko.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

(H) ABIAN 2030ek orientazio bat eta lortu beharreko aldaketak planteatzen ditu, zeinetan hainbat eragile eta subjektuk lagundu dezaketen, beren desberdintasunetik abiatuz. Horretarako, ezbairik gabe, gizartearen eta erakundeen konpromisoa behar da, estrategia hau gauzatu dadin baliabideak ahalbidetzen dituena. Baita ere, eragile bakoitzak bultzatzen dituen proposamen, politika, estrategia, ekintza eta tresnetan zehaztu beharko da estrategia.

Azken finean, (H) ABIAN 2030 GAHko Estrategia gida bat da Euskal Herriko erakunde publikoek, GGKEek eta askotariko beste antolakunde eta mugimenduek hel diezaioten baterako ekarpenak egiteari gizarte aldaketan benetan laguntzen duten hezkuntza prozesuetara, giza eskubideak, berdintasunezko botere harremanak, tokikoaren eta mundukoaren arteko lotura eta Naturaren zaintza errealitatea izan daitezen mundu interdependente eta globalizatu honetan.

Hezkuntza hori bideratuta dago ere herrialde eta pertsonen garapen desberdina dela-eta dauden arazoen iturri eta ondorioei buruz jakitera, eta azpimarratu behar du beharrezkoa dela pertsona eta erakunde guztiak konpromisoa hartzea Agenda Berriarekin eta Garapen Iraunkorreko Xedeekin. Gainera, kontzientzia kritikoa ernatu behar du herritarren artean eta jardun solidario eta konpromisozkoetan parte hartzera adoretu behar ditu herritar horiek.

II. Mundu Gerraz geroztik beren herrialdeetatik alde egin behar izan duten pertsonen kopurua inoizko handiena den honetan eta krisi erraldoiak (Siria,Yemen, Irak, Hego Sudan,...) batera gertatzen ari diren honetan, hil ala bizikoa da buru-belarri jardutea txirotasunaren eta segurtasuna eta bizimodu eta lan duinaren bila milaka eta milaka pertsona beren herrialdeetatik alde egitera behartzen duten gatazken aurka.

Hartara, garapen iraunkorra sustatzera bideratu behar da gizarte eraldaketarako hezkuntza (bere hiru dimentsioetan: ekonomia, gizartea eta ingurumena). Garapen iraunkor horrek pertsona izan behar du helburu, genero ikuspegia ere barneratua izan behar du, giza eskubide guztiak errespetatu behar ditu, eta arreta berezia jarri behar die pertsonarik txiroenei eta kalteberenei.

Horregatik guztiagatik, eta 1/2007 Legean xedatutakoa aplikatuz, Arabako Foru Aldundiak aurreikusten du bere diru baliabideetako batzuk gizarte eraldaketarako hezkuntzarako ekimen eta proiektuetan erabiltzea.

Jarduera horiek gizartearen eta Arabako Foru Aldundiaren konpromisoaren lekuko dira, nola tokian-tokian hala oro har herrien giza garapen iraunkorra sustatzeko; batez ere, txirotasuna errotik desagerrarazteko, giza eskubideak betearazteko, justizian, berdintasunean eta ez diskriminatzean oinarritutako nazioarteko harremanak bultzatzeko.

Deialdi honetan jasotzen diren proiektuak oinarritu behar diren baldintzak, besteak beste, hauek dira: berdintasuna eta bereizkeriarik eza, eta zeharkako moduan, emakumeen eta gizonen aukera eta tratu berdintasunaren printzipioa eranstea, nazioz gaindiko erakundeek emandako zuzentarauei jarraituz, baita ere estatuaren araudiari (martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerakoa) eta autonomia erkidegoko araudiari (otsailaren 18ko 4/2005 Legea, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa; Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VI. Plana, eta Arabako emakumeen eta gizonen berdintasunerako IV. Foru Plana).

Arabako emakumeen eta gizonen berdintasunerako IV. Foru Plana (2016-2020) egungo legegintzaldia hasi eta urtebete geroago eta Legegintzaldiko Plan Estrategikoa onartu eta zenbait hilabete ondoren onartu da, eta programa esparru bat eskaintzen du Arabako Foru Aldundiaren berdintasunaren arloko politika publikoak garatzeko; beraz, gobernuak epe horretan arloan duen konpromisoa erakusten du.

Berdinastunsaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren 2019ko abenduaren 4eko proposamena ikusi da.

Horregatik, eta Diputatu Nagusi gisa dagozkidan ahalmenez baliatuz, honakoa,

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Gizarte eraldaketarako hezkuntzako proiektuetarako 2020ko dirulaguntza deialdia onartzea. Proiektu horiek arabarren konpromiso solidarioa bultzatuko dute, pertsona eta erakunde guztiek Agenda 2030 Berriarekin eta garapen iraunkorreko xedeekin nahitaez eduki behar duten konpromisoan eragingo dute eta garapen bidean dauden herrialdeen egunerokoa eta herri garatuagoekiko aldeak zeren ondorio diren ezagutaraztea ekarriko dute, eta mundu bati eta besteari eragiten dioten arazoen artean dauden harremanak azalaraziko dituzte. Epigrafe erantsian jasotzen da haren kopia. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan indarrean dagoen araudia aplikatuko du deialdi honek.

Bigarrena. Deialdi hori ondoko hauek arautzen dute: Gizarte Zerbitzuen Saileko Gizarte Sustapenaren Zuzendaritzaren lehiaketa bidezko dirulaguntzak emateko oinarri orokorrak (30/2012 Foru Dekretua, maiatzaren 22ko Diputatuen Kontseiluarena, ALHAOren 62. zenbakian, 2012ko maiatzaren 30ekoan, argitaratua), baita ere Foru Dekretu honen eranskinean xedatutakoa eta, halakorik ezean, urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzena, eta aplikatzekoak diren lege osagarri eta garapen legeak.0}

Hirugarrena. Foru dekretu honen bidez araututako dirulaguntzak 2020ko aurrekontu proiektuko 02.5.01 93.00 4.8.1.00.03 "EpTS proiektuen deialdia" partidaren kontura ordainduko dira. Partida horrek 145.000,00 euroko kreditua izango duela aurreikusten da eta, beraz, dirulaguntzak emango dira baldin eta kreditu egoki eta nahikoa badago dirulaguntzaren ebazpena ematen den unean.

Zenbateko hori ehuneko 10ean handitu ahal izango da gehienez ere, gizarte eraldaketarako hezkuntzako ekimenak eta proiektuak garatzeko irabazteko xederik gabeko elkarte eta erakundeentzako diren dirulaguntzen deialdi honi esleitutako urteko zenbateko osoarena.

Laugarrena. Organo eskudunak bidezko den ebazpena hartuko du, organo instruktoreak proposatuta, sei hilabeteko epean gehienez ere, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, erakunde interesdunek ezetsitzat jo ahal izango dute eskaera.

Bosgarrena. Berdintasunaren eta Giza Eskubideen zuzendariari ahalmena ematea foru dekretu hau garatzeko, interpretatzeko eta betearazteko ezinbesteko diren egintzak eta xedapenak emateko.

Seigarrena. Ebazpen honek administrazio bideari amaiera ematen dio eta haren aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango da ebazpena hartu duen organo berean, hilabeteko epean, hura jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera. Edo, bestela, bi hilabeteko epean, zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Zazpigarrena. Laguntza eman ala ukatzeko ebazpena Arabako Lurralde Historikoko Aldizkarian (ALHAO) argitaratuko da, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 45. artikuluan xedatutako moduetakoren batean. Hori izango da jakinarazteko bidea 2020an sentsibilizazioa eta kultura arteko bizikidetza sustatzen dituzten programak edo jarduerak garatzeko dirulaguntzak eskatu dituzten erakundeei.

Zortzigarrena. Foru Dekretu hau ALHAOn argitaratuko da, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko abenduaren 30a

Diputatu nagusia
RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Berdintasun eta Giza Eskubideen zuzendaria
NEREA MELGOSA VEGA

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

ERANSKINA

GIZARTE ERALDAKETARAKO HEZKUNTZAKO EKINTZAK EGITEKO LAGUNTZAK

1. artikulua. Gaia eta helburua

Dirulaguntzak lehiaketa bidez ematea du helburu deialdiak. Dirulaguntzek Arabako herritarren konpromiso solidarioa bultzatzen duten gizarte eraldaketarako hezkuntza jarduerak, genero ikuspegia jasotzen dutenak, laguntzea dute xede. Jarduera horiek honakoak izan daitezke: batetik, sentsibilizazioko ekintza zehatzak egitea, eta, bestetik, gizartea informatzeko, prestatzeko eta kontzientziatzeko programak eta jarduerak gauzatzea, era horretan, gizarteak garapen bidean dauden herrien egoeraren berri izan dezan, herri horietako gizartean, herrialde aberatsekin erkatuta, dagoen desberdintasuna zerk eragin duen jakin ahal izan dezan, eta, orobat, bi mundu horietan eragina duten arazoen artean dauden harremanen berri izan dezan. Jarduera horiek irabazteko xederik gabeko elkarte eta erakundeek egingo dituzte, 2020an, Arabako lurralde historikoan eta Trebiñuko Konderrian.

2. artikulua. Aurrekontua izatea, dirulaguntzen zenbatekoa eta muga

Gastu hori babesten duen aurrekontu partida Arabako Foru Aldundiaren 2020ko ekitaldiko 02.5.01 93.00 4.8.1.00.03 "Gizarte eraldaketarako hezkuntzako proiektuen deialdia" partida da. Partida horrek 145.000,00 euroko kreditua izango duela aurreikusten da eta, beraz, dirulaguntzak emango dira baldin eta kreditu egoki eta nahikoa badago dirulaguntzaren ebazpena ematen den unean.

Deialdi honetan, diruz lagundu daitekeen aurrekontu osoa eragiketa hau egitetik lortzen den emaitza izango da: proiektuaren aurrekontu osoa ken deialdi honen arabera diruz lagundu ezin diren gastuak.

Arabako Foru Aldundiko Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak diruz lagundu daitekeen guztirako aurrekontuaren zenbatekoaren ehuneko 80 finantzatuko du gehienez ere, eta erakunde eskatzaileak gainerako ehuneko 20a jarriko duela bermatu behar du.

Erakunde eskatzaileak bere ekarpena egin ahalko du, modu hauetakoren batean: nola langile boluntarioen balorizazioen bidez, hala bakoitzaren funtsen bidez, beste erakunde pribatu edo publiko batzuetatik eta/edo jarduerak eragindako diru sarrera batzuetatik datozen funtsen bidez, 4. C artikuluan diruz lagundu daitekeen gastutzat hartzen diren partidetakoren batetik egindako ekarpenen bidez, betiere artikulu horretan ezartzen diren mugen barruan.

Langile boluntarioen balorizazioak erakunde eskatzailearen ekarpenaren justifikaziorako baino ez dira kontuan hartuko, eta inolaz ere ezin izango zaizkio egotzi Arabako Foru Aldundiari, ez eta finantzatzen laguntzen duten beste erakunde publiko zein pribatuei ere.

Langile boluntarioen balorizazioaren bidez erakunde eskatzailearen ekarpena egiten bada, aurkeztutako proiektuan jaso beharko da nahitaez, II. eranskinean hari buruzko atala betez. Horrez gain, langile boluntarioen balorizazioaren aurreikuspena azaltzeko idazkia erantsi behar da, jarduera bakoitzerako borondatezko zenbat lanordu egingo diren eta horien kostua zenbat den adieraziz.

Emandako dirulaguntzak ezingo du, inola ere, gainditu ez eskatutako zenbatekoa ez proiektuaren aurrekontuaren ehuneko 80, eta erakunde bakoitzari eman ahalko zaion gehieneko dirulaguntza 13.000,00 euro izango da. Erakunde bakoitzak diruz laguntzeko proiektu bakarra aurkeztu ahalko du.

Ez dute dirulaguntzarik jasoko, deialdi honetan ezarritakoaren arabera berraztertuta, erakundeko 800,00 euroko dirulaguntzara heltzen ez diren eskaerak.

Diruz lagundu daitekeen aurrekontua doitu behar bada, doikuntza hori egin ahal izateko beste dirulaguntzen edota baliabide publiko zein pribatuen bidez proiektuaren kostua elkarrekin finantzatzea eskatu duen erakundeak jakinarazi beharko dizkio horiei buruzko ebazpenak Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzari. Jakinarazpen horrekin batera bidali behar ditu dirulaguntza eman edo ukatu izana egiaztatzen duten agiriak.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Arabako Foru Aldundiak edo beste administrazio batzuek zein nazioko edo nazioarteko beste erakunde publiko edo pribatuek emandako beste dirulaguntza batzuk edo bestelako diru sarrerak jasotzea onartu ahal izango du deialdiak, baldin eta dirulaguntzaren zenbatekoa, bera bakarrik edo beste dirulaguntza batzuekin batera, ez bada diruz lagundu daitekeen aurrekontu osoa baino gehiago.

3. artikulua. Erakunde edota elkarte onuradunak eta bazter utzitakoak. Betebeharrak

1. Irabazteko xederik gabeko elkarte edo erakunde pribatuak izango dira dirulaguntza hauen onuradunak, baldin eta beren jarduerak deialdi honetan aipatzen diren helburuekin bat etortzen badira.

Arabako Lurralde Historikoko sozietatearen egoitzak eta egitura finko eta egonkorrak hartuko du bere gain eskaeraren aurkezpenaren eta jarraipenaren erantzukizun zuzena eta agintzen du proiektuaren agiriak Arabako bulegoan izango dituela.

Erakunde taldeek ere parte hartu ahal izango deialdi honetan, baldin eta taldeko elkarte guztiek betetzen badituzte eskatutako betekizunak.

Elkartzeko izan dituzten arrazoiak azaldu beharko dituzte. Erakunde bakoitzak proiektuan duen partaidetza ehunekoak, bai eta bakoitzaren eskubideek eta betebeharrek ere, hitzarmenez ezarrita egon beharko dute, eta hitzarmen hori erakundeek eskabidearekin batera aurkeztu beharko dute. Hitzarmen horretan, erakundeetako batek bere gain hartuko du proiektu guztiaren erantzukizun zuzena.

2. Hurrengo hauek gelditzen dira deialditik kanpo, Gizarte Zerbitzuen Saileko Gizarte Sustapenaren Zuzendaritzak lehiaketa bidez dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileen 4. artikuluan deialditik kanpo utzitakoez gain (maiatzaren 22ko Diputatuen Kontseiluaren 30/2012 Foru Dekretuaren bidez onartu ziren oinarri horiek):

a. Arabako Lurralde Historikoan edo Trebinuko Konderrian egoitzarik edo ordezkaritzarik ez duten elkarte edo erakundeak.

b. Jardun eremuan Arabako lurraldea edo Trebinuko Konderria edo Arabako biztanleak edo Trebinuko Konderriko biztanleak sartzen ez dituzten elkarteak edo erakundeak.

c. Indarrean dagoen araudian ezarritakoarekin bat etorriz dagokien erregistroan inskribatuta ez dauden elkarte edo erakundeak.

d. Zuzenean nahiz talde bati lotutako edo talde bereko erakundeen bitartez Arabako Foru Aldundiarekin lankidetza hitzarmena duten irabazteko xederik gabeko elkarteak eta erakundeak, baldin eta hitzarmen horren helburua deialdi honen xedeari lotutako jarduerak edo programak gauzatzea bada.

e. Dirulaguntza ildo horren aurreko deialdietan emandako dirulaguntzen ondoriozko betebehar guztiak bete ez dituzten elkarteak eta irabazteko xederik gabeko erakundeak.

3. Erakunde onuradunak egunean egon behar dira zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan, Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 11ko 18/1997 Foru Dekretuan (urriaren 5eko 58/2004 Foru Dekretuak emandako idazkeran) xedatutakoari jarrituz hori frogatu beharretik salbuetsita egon ezean, bai laguntza emateko ebazpena eman aurretik, bai dirulaguntza ordaindu aurretik.

4. Erakunde onuradunen betebeharrak:

Hona hemen dirulaguntzen erakunde onuradunen betebeharrak:

a. Proiektua eta dirulaguntza ematea ahalbidetu duen jarduera egitea.

b. Dirulaguntza ematen duen organoaren aurrean egiaztatzea baldintzak betetzen dituela, eta dirulaguntza emateko oinarrian izan den jarduera egin duela edo helburua bete duela.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

c. Dirulaguntza eman duen organoak egiten dituen ikuskatze lanak onartzea, baita kontrol organo eskudunek egin ditzaketen egiaztapen eta finantza kontrolak ere, aurreko zeregin horietan eskatuko zaien informazio oro emanez.

d. Aplikagarri zaion merkataritzako edota zergei buruzko legediaren arabera, erakunde onuradunak eraman beharreko kontabilitate eta erregistro liburuetan jasota uztea hartutako laguntza eta horren erabilera.

e. Jasotako dirulaguntzen erabilerari buruzko egiaztagiriak gordetzea, egiaztapen eta kontrol jarduketen xede izan daitezkeen heinean.

f. Justifikazioa dela eta, 10. artikuluan xedatutako betebeharrak betetzea.

g. Aplikatu beharreko araudian ezarritako kasuetan jasotako dirua itzultzea.

h. Dirulaguntza eman duen organoari jakinaraztea dirulaguntza ematean kontuan hartutako egoeren aldaketa oro.

i. Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak deitzen dituen bileretan parte hartzea, horretarako ahalik eta parte hartzerik handiena egon dadin beharrezko bide eta bitartekoak ezarriz.

4. artikulua. Diruz laguntzeko moduko programak eta gastuak eta proiektuen betekizunak

A) Diruz lagundu daitezkeen programak:

Helburu hauek dituzten jarduerek eta/edo programek jaso dezakete dirulaguntza:

• (H) ABIAN 2030 Gizarte Aldaketarako Hezkuntzako (GAH) euskal Estrategiaren barruan programak eta jarduerak bultzatzea.

• Munduaren egungo egoerari buruzko kontzientzia kritikoa sortzea, emakumeen eta gizonen egoeretan dauden aldeei eta premiei erantzunez.

• Herritar politikoki aktiboak eta konprometituak sustatzea, errespetu eta berdintasun balioak bultzatuz eta garatuz.

• Agenda 2030 Berriarekiko eta garapen iraunkorreko xedeekiko konpromisoa sustatzea.

• Giza garapen zuzena, bidezkoa eta iraunkorraren aldeko gizartea mugiaraztea, beti ere giza baliabideei begirunea erakutsiz, zeinen funtsezko elementuak baitira partehartzea, gizarteratzea, berdintasuna eta diskriminazio eza.

• Deialdi honen helburuari lotutako beste edozein jarduera edota programa.

B) Diruz lagundu ezin daitezkeen programak.

Ondorengo hauek ez dira diruz lagunduko:

I. Gizarte Zerbitzuen Saileko Gizarte Sustapenaren Zuzendaritzak lehiaketa bidez emango dituen dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorretako 16. artikuluaren arabera, justifikazio atalean (II. eranskinaren 1. puntuan) genero ikuspegia sartzen ez duten proiektuak. Horren barruan jaso behar da emakumeen eta gizonen premia eta egoera espezifikoen azterketa bereizia eta proiektuak berdintasunean aurrera egiteari egingo dion ekarpena.

II. Aurrekontuan inprimakiko (II. eranskina) 3. atala ondo xehatuta aurkeztu ez edota irizpide honetan punturik lortu ez duten proiektuak.

C) Diruz lagundu daitezkeen gastuak:

1. Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira honako baldintza hauek betetzen dituztenak: diruz lagundutako jardueraren izaerarekin inolako zalantzarik gabe bat etortzea, behar-beharrezkoak izatea eta 2020ko urtarrilaren 1a eta 2020ko abenduaren 7a bitartean eginak izatea.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Halaber, gehienez ere, kostu zuzenen ehuneko 10ak jaso ahal izango du dirulaguntza ezer justifikatu beharrik gabe, gastu orokorrak edo zeharkako gastuak badira. Ez da onartuko balioetsitako gastuen zenbatekoa. Gastu orokorren barruan sartuko dira diruz lagundutako jarduerarekin lotura zuzena ez duten elektrizitate, berogailu, ur, telefono, alokairu eta zerbitzu orokorren gastuak, egitura kostuei dagozkienak, eta abar. Kontzeptu horretan sartuko dira, halaber, dirulaguntza jaso duen erakundearen koordinazioaz edota administrazioaz arduratu diren langileen gastuak.

Diruz lagundu ahal izango dira, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilerari buruz jasotakoari dagokion betebeharra betetzeak erakunde onuradunei eragindako gastuak.

BEZerako dirulaguntza eman ahal izango da, baldin eta erakundeak ezin badu berreskuratu.

Joan-etorrietako gastuei dagokienez, ahal dela, garraio publikoa erabiliko da. Garraio pribatua erabili behar bada, kilometro bakoitzeko 0,29 euroko muga ezarri da.

Langile boluntarioen balorizazioa:

Eskatzailearen ekarpena justifikatzeko bakarrik hartuko da kontuan; dirulaguntzarako gehienez 20,00 euro onartuko dira orduko.

Kontratazioek (proiektua zuzenean burutzeko kontratatzen diren profesionalak, soldatapeko langileak eta bestelakoak –enpresak, elkarteak–) eragiten dituzten gastuak:

Kontratazio baten gastuak dirulaguntzarako onartzeko ezinbestekoa da xedea kontratatzen den pertsona edo erakundea proiektuan aritzea izatea. Kontratazioaren inguruko koordinazioak edota administrazioak erakundeari eragiten dizkion gastuak ez dira sartuko kontratazio gastuetan.

Publizitatearen gastuak.

Honako hauek ez dira diruz lagundu daitezkeen gastuen artean sartuko: suntsigarria ez den materiala, bazkariak, opariak eta antzekoak.

Aparteko kasuetan, jarduera berezi jakin batzuen dirulaguntzetan (izaera, metodologia, berrikuntza edota espezializazio berezia) puntu honetan azaltzen diren mugak gainditu ahal izango dira. Salbuespenak: langile boluntarioen balorizazio gastuak eta proiektuaren gastu orokorrak edo zeharkakoak. Salbuespentzat jotzeko eta Balorazio Batzordeak hala dela onartzeko, hala badagokio, erakunde eskatzaileak salbuespen izaera hori behar bezala justifikatu beharko du II. eranskinean (proiektuaren inprimakia).

Proiektu baten barruan Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren iritziz deialdiaren xedea behar bezainbat aldezten ez duen jarduketarik egonez gero, dirulaguntzaren kalkulutik baztertu daiteke.

2. Diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren ehuneko 100eraino azpikontratatzea baimendu ahalko da, dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 27. artikuluan ezarritako betekizunak betez gero. Entitate onurdunak loturiko pertsona edo entitateekin egitea hitzartu ahalko du, baldin eta inguruabar hauek gertatzen badira:

1. Kontratazioa merkatuko baldintza arrunten arabera egitea.

2. Aldez aurretik organo emailearen baimena jasotzea, (II. eranskinean jasotako eskaera ereduaren arabera)

D) Proiektuaren betekizunak:

* Proiektuak egiten 2020an hasi beharko da, eta 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera kontatu ahalko da proiektuaren hasiera data.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Dirulaguntza deialdi hau ebatzi eta 30 egun igaro baino lehen ekin beharko zaio proiektuari, eta betiere 2020ko abenduaren 7a baino lehen egin beharko da.

Zernahi baleko arrazoi dela eta, epe hori igaro eta proiektua hasi ez bada, baimena eskatuko zaio, idatziz, Berdintasun, Lankidetza eta Kulturartekotasun Zerbitzuari. Hala ere, baimen horrek ez ditu inoiz gauzatze eta zuritze epeak luzatuko; hortaz, horrelakoetan, proiektua gauzatzeko epea laburtu egingo da.

Erakunde onuraduna behartuta dago proiektuaren hasiera eguna Berdintasun, Lankidetza eta Kulturartekotasun Zerbitzuari jakinaraztera, diruz lagundutako proiektuari jarraipen egokia egin dakion.

Edonola ere, proiektua amaitzeko epea ez da 2020ko abenduaren 7a baino beranduagokoa izango.

—Jarduerak, gutxienez, Arabako Lurralde Historikoko bi herritan egingo dira.

Diruz lagundutako eta jende guztiari irekitako jardueren artetik Berdintasun, Lankidetza eta Kulturartekotasun Zerbitzuak interesgarri deritzenak Laia Eskola – Arabako emakumeen jabekuntzarako eta berdintasunerako eskolaren urteroko programazioaren osagai izango dira.

— Arabako Lurralde Historikoan azken hiru urteetan, euskal administrazio publikoren batek finantzatuta, gutxienez, garapenerako sentsibilizazio edo hezkuntzako jarduera bi egin direla egiaztatzea.

5. artikulua. Eskabideak aurkeztea

1. Eskabideak eta deialdi honen seigarren artikuluan zehazten diren agiriak aurkezteko hogeita hamar egutegi-egun egongo dira, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean zenbatzen hasita.

Eskabideen jasotzailea Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza izango da. Eskabideen ereduak deialdi honen I eta II. eranskinetan jasoko dira, baita Arabako Foru Aldundiaren web orrian (www.araba.eus) ere.

Eskaerak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu behar dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan (https://e-s.araba.eus), edo, bestela, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean, aldundiaren beste erregistro batzuetan eta itundutako udalen erregistro orokorretan aurrez aurre. Eskaera horiek Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzari zuzenduko zaizkio.

Hori guztia, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 16. artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

Bitarteko elektronikoen bidez aurkezteko, eskatzaileek ziurtagiri elektronikoa izan behar dute aldez aurretik. Egoitza elektronikora sartzeko bideak zeintzuk diren eta entitate egiaztatzaile batek jaulkitako egiaztagiri elektronikoa non eskatu behar den jakiteko, jo atal honetara: Ezagutu egoitza-Nola sartu.

Arabako Foru Aldundiaren webgunean https://web.araba.eus/es/ayudas-igualdad-cooperacion-e-interculturalidad eskuragarri dagoen informazioan, eskaera ongi aurkezteko jarraitu beharreko argibideak zehazten dira.

6. artikulua. Agiriak

1. Eskabidearekin batera ondoko agiriak aurkeztuko dira:

a. Eskaera sinatzen duen pertsonaren NANaren fotokopia eta erakunde edo elkarte eskatzailearen ordezkaritzan ari dela frogatzen duen agiria.

b. Erakunde eskatzailearen IFKren fotokopia eta Araban edo Trebiñuko Konderrian egoitza edo ordezkaritza irekita daukala frogatzen duen agiria.

c. Erakundeak indarrean dituen estatutuen fotokopia eta Elkarte eta Erakundeen Erregistroan legez eratu eta erregistratuta dagoela egiaztatzen duen dokumentazioa.

d. Elkartea edo erankunde eskatzailearen zuzendaritza batzordearen osaketaren aktaren fotokopia.

e. Eskabidearen inprimakia, I. eranskinari jarraiki.

f. Proiektuaren inprimakia, II. eranskinari jarraiki.

g. Baldin eta beste dirulaguntza publiko eta/edo pribaturen eskatu bada, haien egiaztagiriak aurkeztu behar dira zenbat diru eskatu den adieraziz

h. Egoitza nagusia Arabako Lurralde Historikotik kanpo duten erakundeek dagokien Zerga Ogasunarekin dituzten zerga betebeharrak bete dituztela azaltzen duen ziurtagiria aurkeztu behar dute.

i. BEZa ordaintzetik salbuetsita daudela azaltzen duen ziurtagiria aurkeztu behar dute, dagokien zerga administrazioak emana, eta Balio Erantsiaren gaineko Zergan (BEZa) lainaren erregelan daudenek, portzentajearen justifikazioa.

j. Hala badagokio, erakunde publiko edota pribatuen lankidetza konpromisoaren idazkia (eredua II. eranskinean).

k. Hala badagokio, kontratazio gastuen aurreikuspenaren azalpen idazkia (eredua II. eranskinean).

l. Hala badagokio, joan-etorrien gastuen aurreikuspenaren azalpen idazkia (eredua II. eranskinean).

m. Hala badagokio, langile boluntarioen balorizazio aurreikuspenaren azalpen idazkia (eredua II. eranskinean).

— Hala badagokio, erakundeak Araban dituen boluntarioen aseguruak ordaindu izanaren egiaztagiriak.

— Hala badagokio, ALHn kontratatuta dauden langile teknikoen egiaztagiriak.

n. Dirulaguntza erakunde elkarte batek eskatzen badu, 3. artikuluan jasotako agiriak eta hitzarmena.

ñ. Arabako Lurralde Historikoan azken hiru urteetan, euskal administrazio publikoren batek finantzatuta, garapenerako sentsibilizazio edo hezkuntzako jarduerak egin dituela frogatzen duten agiriak. Jardueraren izenburua, data, lekua eta guztirako kostua adierazi behar dira. Gehienez hiru jarduera.

o. Hala badagokio, Erantzunkizunpeko Adierazpena (eredua II. Eranskinean)

p. Hala badagokio azpikontrataziorako baimen eskaera (II.eranskineko ereduaren arabera)

q. Egoitza elektronikoaren bidez aurkeztuz gero, erakunde eskatzaileak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan eskuragai dagoen inprimakian eskatzen den informazioa bete behar du.

2. Aurkeztutako eskaera egoki baloratu eta ebazteko, Arabako Foru Aldundiko Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak agiri eta informazio gehiago eska diezaieke erakunde eskatzaileei.

3. Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenaren urriaren 1eko 39/2015 Legeak 53. artikuluan xedatutakoaren arabera, baldin eta eskatutako agiriak jada Arabako Foru Aldundiak badauzka, esan behar da non eta noiz aurkeztu ziren.

Agiriren bat lortzeko modurik ez badago, organo eskudunak eskatzaileari errekerimendua egin ahal izango dio hura aurkez dezan, edo, bestela, agiri horretan egiaztatutako baldintzak beste bide batzuetatik froga ditzan, ebazpen proposamena egin aurretik.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

4. Dirulaguntza eskaera aurkezteak berekin ekarriko du erakunde eskatzaileak baimena ematea organo kudeatzaileak zuzenean eskuratu ahal izateko 4. artikuluan adierazten diren inguruabarren egiaztagiriak, eta bereziki Arabako Foru Ogasunarekiko egoerei (barne dago, hala badagokio, BEZaren salbuespena eta BEZ zergan hainbanaketa erregelako ehunekoa) eta Gizarte Segurantzarekiko egoerari buruzkoak. Nolanahi ere, egoitza Arabako Lurralde Historikoan ez daukaten erakundeek beraiek aurkeztu beharko dute kasuan kasuko ogasunarekiko egoerari buruzko ziurtagiria.

7. artikulua. Izapideak eta Balorazio Batzordea

Arabako Foru Aldundiko Berdinatsunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzako Berdintasun, Lankidetza eta Kulturartekotasun zerbitzuak izango du prozedura izapidetzeko eskumena.

Eskaerak balorazio batzorde batek aztertuko ditu. Haren kideak izango dira Berdintasunaren eta Giza Eskubideen zuzendaria, edo hark eskuordetutako pertsona, Berdintasun, Lankidetza eta Kulturartekotasun Zerbitzuaren burua, Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzari atxikitako garapenerako lankidetza arloko bi teknikari eta Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzako administrazio orokorreko teknikari bat, idazkari lanak egingo dituena eta ahotsa bai, baina botorik izango ez duena. Batzorde horretako kide batek gutxienez emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko ezagupenak edota haren aplikazio praktikoko esperientzia izango ditu.

8. artikulua. Deialdiaren ebazpena

1. Organo eskumendunak eman beharreko ebazpena emango du, organo instruktoreak proposatuta, sei hilabeteko epean gehienez ere, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Gehienezko epea igarota esanbidezko ebazpenik ez bada egon, eskaerari ezezkoa eman zaiola ulertuko du erakunde interesdunak.

2. Dirulaguntzak emateko ebazpenean oinarri arautzaileak eta deialdiaren baldintzak betetzen direla aipatuko da arrazoien azalpenean; gainera ondoko datuak argitu behar ditu:

a) Zein diren dirulaguntza jasoko duten erakunde onuradunak (zerrendan bakoitzaren zenbatekoa zehaztuko da); dirulaguntza jaso ez dutenei dagokienez, batetik azalduko da zeintzuen eskaera ezetsi den eta bestetik zeintzuek ez duten jasoko dirua uko egin diotelako edo proiektua ezin burutu dutelako.

b) Lagundutako proiektuaren izena eta diruz lagundu daitekeen aurrekontua

3. Kontuan izanda urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 45. artikuluan xedatutakoa, dirulaguntza eman edo ukatzen duen ebazpena ALHAOn argitaratuko da, eta jakinarazpen ondorioak izango ditu horrek.

4. Ebazpen honek administrazio bideari amaiera ematen dio eta haren aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango da ebazpena hartu duen organo berean, hilabeteko epean, hura jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera. Edo, bestela, bi hilabeteko epean, zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

9. artikulua. Eskabideak baloratzeko irizpideak

Ondoko irizpideak aplikatuko dira:

1. Aurkeztutako proiektuaren justifikazioa (gehienez, 5 puntu):

Testuinguruaren azalpen argia eta zehatza eta aurkeztutako premiari proiektuak aurre nola egingo dion edo premia hori asetzen nola lagunduko duen. Genero ikuspegia kontuan hartu beharko da, gutxienez puntu honetan, 4. artikuluan adierazi legez.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

2. Proiektuaren kalitate teknikoa (gehienez, 18 puntu / 23 puntu):

Proiektuaren justifikazioaren, duen helburuaren, metodologiaren, planifikatutako jardueren eta aurreikusitako jarraipenaren eta ebaluazioaren arteko lotura. Proiektuaren koherentzia orokorra (5 puntu).

Jardueren zehaztasun, argitasun, xehetasun eta plangintza maila. (5 puntu)

Proiektuaren interesa. Proiektua helburu orokorrei eta diruz lagundu daitezkeen programei zein mailatan egokitzen zaien. Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak proiektuari interes berezikoa iriztea. (4 puntu)

Proiektuaren berrikuntza maila. Proiektua orokorrean berritzailea izatea edota metodologiari, baliabide edo materialei, ekintzei, hedapenari edo berritzailetzat jo daitekeen beste edozeini lotutako elementu berritzaileak proiektuaren faseetan sartuta izatea. (4 puntu)

Lankidetza konpromisoa (ikastetxeekin, elkarteekin, udalekin eta abarrekin lankidetzan aritzeko aukera ematen duten edo horiekin batera planifikatu daitezkeen proiektuen kasuan besterik ez). Proiektuan parte hartzeko lankidetza konpromisoaren idazkia aurkezten bada (5 puntu).

3. Proiektuaren aurrekontua (gehienez, 4 puntu):

Aurrekontuaren xehetasuna, zehaztasun maila eta proiektuari egokituta egotea, azkenari dagokionez, oinarri orokorretan Diputatu Nagusiaren Kabinetearen Zuzendaritzaren esleipeneko eta erabilerako eraginkortasunari lotuta jasotako printzipioari jarraituz.

4. Proiektuaren eragina (gehienez, 7 puntu):

Hartzaileen ezaugarriak eta kalkulatutako partaide kopurua; gerturatzeko eta zabaltzeko prozedura eta sareko lana (3 puntu)

Proiektua lurralde historikoko 3 udalerritan edo gehiagotan egitea. (2 puntu)

Arabako lankidetzak finantzatutako esku-hartzeak hedatzeari ekiten dioten proiektuak. (2 puntu)

5. Proiektuan genero berdintasunaren ikuspegia jasotzea (gehienez, 10 puntu):

Proiektuaren ataletako bakoitzean genero berdintasunaren ikuspegia zein neurritan kontuan hartu den baloratuko da (datuak sexuen arabera banatuta, hizkera inklusiboa, proiektuan parte hartzen duten pertsonen genero prestakuntza, etab.) eta arreta berezia emango zaie sexuen araberako rolei eta estereotipoei. Kontuan hartuko da honako hauek aintzat hartu diren ala ez: emakumeen eta gizonen egoerak eta premiak helburuetan, jardueretan, egutegian eta proiektuaren ebaluazioan, emakumeen eta gizonen parte hartzea proiektuaren zati desberdinetan, proiektua garatzearen ardura duten pertsonek duten generoaren inguruko prestakuntza eta proiektuak berdintasuna lortzeko bidean egingo duen ekarpena.

Haurrei eta/edo gazteei zuzendutako sentsibilizazio jardueretan, bereziki eragingo da genero rola haustean.

6. Elkartearen zuzendaritza batzordearen ehuneko 50, gutxienez, emakumeak izatea (3 puntu).

7. Araban egotea eta han jardutea (gehienez 6 puntu).

Egiaztatzea egoitza nagusia Arabako Lurralde Historikoan duela (3 puntu).

Egiaztatzea erakundearen Arabako egoitzan gutxienez 5 boluntariok lan egiten dutela (1 puntu)

Egiaztatzea Arabako Lurralde Historikoan langile teknikoak kontratatu direla, zeinen lanlekua lurralde horretan dagoen. (2 puntu)

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

8. Deialdian eskatzen diren agiriak aurkeztea eta baldintzak betetzea zuzenketarik egin gabe (2 puntu).

Proiektu batek dirulaguntza jaso ahal izateko puntuazio posible osoaren ehuneko 50 lortu behar du gutxienez.

Irizpide bakoitzean gehienez lor daitekeen puntuaziotik lortutako puntuak batu egingo dira eta dirulaguntza eman aurretik, aurkeztutako eta onartutako eskaerak alderatuko dira, horien arteko hurrenkera bat ezartze aldera. Hurrenkera hori puntuen araberakoa izango da eta dirulaguntzak hurrenkera horren arabera esleituko dira, puntu portzentaje gehien dituen eskaeratik hasi eta gutxien dituen eskaerara, aurrekontua bukatu arte.

Eskuragarri dagoen aurrekontua agortzen duten puntuazio portzentajearen azken tartean dauden eskaerei dagozkien dirulaguntzen zenbatekoak honela kalkulatuko dira: gerakina hainbanatuz, diruz lagundu daitekeen proiektu edo jarduera bakoitzaren dirulaguntza jaso dezakeen aurrekontuaren arabera.

10. artikulua. Gastuak justifikatzea. Erakunde onuradunek aurkeztu beharreko agiriak eta epealdia

Dirulaguntzen erakunde onuradunek proiektuaren justifikazioa aurkeztu ahal izango dute Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean (Probintzia plaza 5, Vitoria-Gasteiz), aldundiaren beste erregistro batzuetan, itundutako udalen erregistro orokorretan edo egoiza elektronikoan.

Hori guztia, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 16. artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

Justifikazioa egoitza elektronikoaren bidez aurkezten bada, justifikazio agiriekin batera erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da, Arabako Foru Aldundiaren web orrian https://web.araba.eus/es/ayudas-igualdad-cooperacion-e-interculturalidad eskuragarri dagoen ereduaren arabera.

"Horrez gain, adierazi behar da espedienteetara sartzen diren fitxategiak jatorrizkoen irudi zehatza direla, jatorrizkoak erakunde eskatzailearen eskuetan daudela eta Arabako Foru Aldundiaren eskura jarriko dituela hala eskatzen zaionean."

Beti ere, proiektuaren gastuen azken justifikazioaren aurkezpenerako, hau da, diruz lagundu daitekeen aurrekontu guztia aurkezteko, epe bat izango da, eta epe hori 2020ko abenduaren 15ean bukatuko da.

Salbuespenez, eta aurkezturiko amaierako justifikazioan ez bada egiaztatu egindako gastuen ordainketa dirulaguntzaren ehuneko 20koa edo gutxiagokoa izan dela, justifikatu beharreko aurrerakin gisa egingo da ordainketa, ordainketa haien egiaztagiriak dirulaguntza jaso eta hilabeteko epean aurkeztu beharko dira.

Dirulaguntzak jasotzen dituzten erakundeek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

1. Dirulaguntza jaso duen proiektuaren burutzapen gradua justifikatzen duen jarduketa memoria. Justifikazio inprimakia oso-osorik bete behar da nahitaez, honekin batera doan III. eranskinaren arabera.

2. Proiektuaren gastuak eta sarrerak modu erraztuan justifikatzen dituen memoria ekonomikoa. Justifikazio inprimakia oso-osorik bete behar da nahitaez, honekin batera doan III. eranskinaren arabera.

Memoria horrekin batera nominak, fakturak eta proba gisa antzeko balioa duten bestelako agiriak aurkeztu behar dira, eta horiei dagozkien ordainagiriak ere bai.

Dirulaguntza jaso duen proiektuak beste finantzaketa iturriren bat eduki badu, aurkezten diren nominak, fakturak eta gainerako agiriak zigilu batez markatuko dira Berdintasun, Lankidetza eta Kulturartekotasun Zerbitzuan dirulaguntza jaso duen proiektuaren justifikaziorako egozten den zenbatekoa adierazteko.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Aurkeztutako dokumentazio guztiak jatorrizkoa izan behar du edo, bestela, fotokopia konpultsatua aurkeztu behar da, eta guztira, diruz lagun daitekeen aurrekontuaren zenbatekoaren berdina edo gehiagokoa izan beharko du.

Faktura elektronikoak aurkeztuz gero, Factura-e motako estandarretara egokitu beharko da haien formatua. Sinadura elektronikoa duen beste edozein agiri aurkeztekotan, konfiantzazko zerbitzu elektronikoen emaile kualifikatuen konfiantzazko zerrendan jasotako ziurtagiriak onartuko dira (http://sede.minetur.gob.es/Prestadores).

Soldatapeko langileak edota profesionalak kontratatzeak eragiten dituen gastuen justifikazioa nahitaez aurkeztu behar da.

Soldatapeko langileen gastuei dagokienez, erakundeak kontratatutako pertsonen jatorrizko nominak -edo fotokopia konpultsatuak- aurkeztu beharko dira beti, proiektuari atxikita egon diren aldikoak hain zuzen. Horien ordainagiri gisa honako hauek onartuko dira:

— Jatorrizko nominak, langileak sinatuta.

— Langileak izenpetutako jatorrizko idazkia, non agertuko baita langileak kobratu egin duela eta kobratutakoa zein hilabetekoa den.

— Nominen ordainketa multzokatuaren jatorrizko banku laburpena eta horrekin batera, enpresa/erakunde onuradunaren ziurtagiria, langileen nominak transferentzia horren kontra ordaindu direla zehazten duena eta langile bakoitzari aurkeztutako hilabete bakoitzeko zein kopuru dagokion adierazten duena.

Horrez gain, aurkeztu beharko dira nahitaez Gizarte Segurantzaren TC1 eta TC2 ereduak, eta bidezko kotizazioen ordainketaren laburpena.

